IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA

HIZKUNTZA-ESTRATEGIA BIRPENTSATUZ

ERREALITATE BERRIAK

Euskara biziberritzeko bidea uste baino katramilatsuagoa da. Ahaleginetan jarraitu behar dugu, dudarik gabe, baina esfortzuari ahalik eta etekinik handienak ateratzeko, gure jarduna egungo baldintzetara egokitu beharra dago. Ezin da, hamarkada batzuetan baliotsua izan den planteamendu berarekin itsumustuan jarraitu, denbora tarte honetan gizarte baldintzak dezente aldatu direlako.

Gertatu diren aldaketa ugariren artetik bi jarriko ditugu hemen hizpide: hizkuntza ulertzeko paradigma eta gure bizilagun berrien ekarpena, bi-biak elkarrekin uztartuz egoera hobeto ulertu eta bideratuko dugulakoan.

PARADIGMA LINGUISTIKOAREN ALDAKETA

Sinestarazi nahi izan digute, hamarkada luzetan, elebakartasuna dela herrialdeen berezko egoera, hizkuntza bat baino gehiago izatea gaiztzat joz, nolabait. Baina, mende luzeetako errealitatea eleanitza izan da, eta horrela dirau egungo mundu globalizatuan ere.

Azken hamarkadetan, ordea, aldaketa sakona gertatu da pertzepzioan, elebakartasuna goraipatzetik eleaniztasunaren balioa aintzat hartzera igaroz. Ildo horri jarraituz, eleaniztasunaren aldeko joerak ari dira hedatzen Europako politikagintzan, arrazoi bikoitzagatik: a) gizatalde gutxituen hizkuntza-eskubideak gero eta onartuagoak direlako, paper gainean gutxienez; b)

herritarrak zenbait hizkuntzatan gaituak izateak gero eta garrantzi praktiko eta ekonomiko handiagoa duelako, hala nola mugikortasunerako eta komunikaziorako, Europako lankidetza bultzatzeko edo hezkuntza sistemen garapenerako. (Laakso et al., 2016: 1, 7-8).

Gaurko gizarteak eleaniztuna eta hainbat hiztun zenbait hizkuntzaren jabe izatearen arrazoitzat, ondokoak jotzen dituzte adituek: 1) Lurralde berean, historikoki ukipen egoeran dauden bi edo hizkuntza gehiago egotea; 2) Globalizazioak ezarritako komunikazio premiak; 3) Gizatalde migratzaile batzuek harrera-gizartera atzerriko hizkuntzak eramatea. Hiru baldintza horiek erabat betetzen dira Euskal Herrian. (Martínez de Luna, 2018: 53).

BIZILAGUN BERRIEN EKARPENA

Gurean gertatu den beste aldaketa bat etorkin berriena da. Datu batzuek argi erakutsiko digute zein izan daitekeen etorkinen eragin demo -linguistikoa gure gizartean.

2015ean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen %4,5ek etxean ikasitako lehen hizkuntza, ez zen euskara ez gaztelania, besteren bat baizik. Ikasle horiek atzerriko familien seme-alabak izan ohi dira, eta multzo hori hazten doa, urtez urte (2011n, %3,5ekoa zen). Horrekin batera, umeak eskolaratzeko familia etorkin batzuek egin ohi duten gaztelaniaren aldeko hautua dugu: 2015ean, atzerriko familietan jaiotako haurren %13,3k A ereduan (euskara ikasgaia baino ez) ikasten zuten, eta hautu hori ikasle guztien -edozein jatorri dutenen- artean %5,1 baino ez da (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2017). Ondorioa garbia da: familia giroan atzerriko hizkuntza duten umeen proportzioa gero eta handiagoa izanik eta familia horietako askok seme-alabentzat egiten duten hizkuntza-hautuari erreparatuz gero, egungo ikasleen multzo koskor xamarra gure kulturan eta hizkuntzan sozializatuak izatetik lekutan eta egongo dira, ghetto kulturaletan haziz eta heziz.

Bestalde, etorkinek kanpotik ekarri dizkiguten hizkuntzei erreparatzeko bestelako motiboak ere badaude.

Aniztasuna babestea: oro har, balio unibertsal gisa ulertzen eta onartzen da aniztasuna eta eleaniztasuna enbor bereko adarra dugu. Ideia horrekin bat, munduko hizkuntzen biziraupen osasuntsua, euskararena barne, guztion kezka eta ardura litzateke. Bertako hizkuntza-aniztasuna babestuz, gizateria osoaren ondarea bermatzen lagunduko dugu. Beste horrenbeste aipa daiteke gure herrira etorri berriak direnen hizkuntzez; altxor unibertsalaren aleak dira, eta gure ekosistema linguistikoan lekua egin beharko diegu, elkarbizitzaren, koherentziaren eta pragmatismoaren izenean.

Elkarbizitza ere bada arrazoia. Lau izan daitezke etorri berrien eta harrera-gizartearen arteko jokabide motak: asimilazioa, integrazioa, bereizketa eta marjinazioa. Etorkinen benetako integrazioa ala ezkutuko asimilazioa nahi dugun argitu behar dugu. Elkarren arteko errespetuan eta ezberdinen arteko elkarbizitza harmoniatsuan bizi nahi duten gizataldeek integrazioaren alde egin behar dute, asmo horiei begira beste hiru aukerak ustelak baitira. (Sarrionandia, 2010: 486-487). Baina, desiragarriena den integrazioak kulturen arteko nolabaiteko harremana eskatzen du: etorkinek gugana hurreratu behar duten bezala, guk ere pausoak eman beharko ditugu etorkinen kulturen eta hizkuntzen aitortza egite aldera. Atzerriko hizkuntzen balioa guk geuk aitortuz, elkarrekiko enpatia eta elkarrenganako hurbilketa areagotuko lirateke eta, horrela, errazago piztuko litzateke haiengan ere gure kulturara eta hizkuntzara hurbiltzeko grina. Konbergentziarako joera horiek oso lagungarriak lirateke gure gizartearen integraziorako.

EGUNGO IKASLEEN MULTZO KOSKOR XAMARRA GURE KULTURAN ETA HIZKUNTZAN SOZIALIZATUAK IZATETIK LEKUTAN ETA EGONGO DIRA, GHETTO KULTURALETAN HAZIZ ETA HEZIZ

Badaude gure bizilagun berrien hizkuntza exotikoez arduratzeko beste motibo pertsonal bat

ere: koherentzia. Poztu ohi gara entzutean Amerikatara emigratu ziren euskaldun batzuek euskara bizirik gorde dutela edo beraien ondorengoak berreskuratzen saiatzen direla. Hortaz, gogo onez onartu beharko genuke gugana iritsi berri direnek beren hizkuntzekin beste horrenbeste egitea. Guretzat nahi duguna, denentzat ona; koherentzia hutsa!

Azkeneko arrazoia: atzerriko hizkuntzak -eta kulturak- ondo menderatzen dituzten euskal herritar berriak baliotsuak izan daitezke gure ekonomiak dituen nazioarteko harremanetan eta lehian jarduteko. Hizkuntza horien hiztun petoak diren etorkinak ezin egokiagoak lirateke enpresen ordezkariteknikari gisa beren jatorrizko herrialdeetan. Lehiatzeko balio erantsia da lekuan lekuko hizkuntzak eta kulturak ongi menderatzea. Nor egokiagoa herrialde horietako kulturetan heziak direnak baino?

Aurrekoak ikusita, nire egiten dut Xabier Aierdik idatzi duena: "Programa integrala eskatzen du immigrazio eta euskararen arteko harremanak, mugimendu batean bi helburu betetzeko: gizarte-inklusioa eta hizkuntzarena ere." (Aierdi, 2014: 530).

AZKEN GOGOETA

Zenbait hizkuntzetan trebatuak izatea, edonork jotzen du beharrezkotzat, gaur egun; alegia euskaraz, estatuetako hizkuntzak diren gaztelaniaz zein frantsesez, eta globalizazioak ezarri digun ingelesez, gutxienez. Premia hori onartuta ere, ordea, zalantza dugu ez ote diren hizkuntza horietako batzuk eta besteak elkarren kontran ulertzen eta bultzatzen, horien plangintzari eta kudeaketari modu integratuan ekin ordez. Egungo elebitasun ofizialak ere ez du ongi islatzen gure errealitate linguistiko koloretsua eta, ondorioz, zaila du erantzun egokia ematea egunerokoan agertzen diren premiei. Beraz, eskarmentuak erakutsi diguna aintzat hartuz eta, aldi berean, elebakartasunaren paradigma zaharraren inertzia gaindituz, eleaniztasunean oinarritutako beste estrategia bat birdiseinatu beharko genuke.

BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

Aierdi, X. (2014). Hizkuntza praktikak hiri mundu eta mundu hirietan: Anbibalentziaren presentzia. Euskera 59-2 (503-544).

Laakso, J., Sarhimaa, A., Spiliopoulou, S., Toivanen, R. (2016). Towards openly multilingual policies and practices: Assesing minority language maintenance across Europe. Bristol/Buffalo. Multilingual Matters.

Martínez de Luna, I. eta Suberbiola, P. (2017). Arrue Ikerketa: EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, 2011-2015. (txosten teknikoa) (http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albistea/2017/arrue-ikerketa-eaeko-ikasleen-euskararen-erabilera-eskola-giroan-2011-2015/) (Azken kontsulta: 2018-09-30).

Martínez de Luna, I. (2018): Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garaiko erronka. BAT Soziolinguistika Aldizkaria 106, 2018 (1), 47-64.

EUSTAT, (2017, 2014). Datu bankua. Biztanleria. (http://eu.eustat.eus/indice.html). (Azken kontsulta: 2018-09-30).

Sarrionandia, J. (2010). Moroak gara behelaino artean? Iruñea. Pamiela.